

---

## **LANKIDETZA PROTOKOLOA, NAFARROAKO GOBERNUKO LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENDUAREN ETA EUSKO JAURLARITZAKO SEGURTASUN SAILAREN ARTEKOA, BIOK EGITEN DUTEN POLIZIA JARDUERAREN GAINEKO ESPERIENTZIA ETA INFORMAZIO TRUKEARI BURUZ**

Vitoria-Gasteiz , 2014ko ekainaren 25a

### **BILDUTA**

Alde batetik, **Javier MORRÁS ITURMENDI jauna**, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria

Bestetik, **Estefanía BELTRAN DE HEREDIA ARRONIZ andrea**, Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko sailburua.

Bi alderdiek esku hartzen dute beren erakundeen izenean eta ordezkartzan, egintza honetarako nahikoa ahalmen eta gaitasun elkarri aitortuta, eta helburu horrekin

### **ADIERAZTEN DUTE**

Beren polizia-kidego autonomikoen –Nafarroako Foruzaingoa eta Ertzaintza– lanaren funtsezko premisa da polizia-zerbitzu publikoa ematean hobetzea.

Nafarroako Gobernua eta Eusko Jaurlaritzak jabetuta daude gizarte moderno eta demokratiko batean polizia-zerbitzu publikoa eskaintzeko bikaintasunerako bideak eskatzen duela burutzen duten polizia-jarduerari buruzko esperientzien eta informazioaren trukaketa areagotzea, betiere beren eskumenak erabiliz, baita beren eginkizunak eraginkortasunez betetzeko beharrezko izan ditzaketen lankidetzak eta laguntza aktiboak ematea ere.

Delituak eta faltak, bereziki gizartean biztanleen artean alarma sortzen dutenak, jazartzeko gomendagarria da Nafarroako Foruzaingoa eta Ertzaintzaren artean lankidetzak bideak jartzea. Testuinguru honetan Nafarroako Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak arlo horretako esperientzia, plan, lan-programa eta informazioen trukaketa sustatzeko asmoa dute.

Alderdi sinatzaileen premiei behar bezala erantzuteko eta, bakoitzaren ezaugarriak eta berezitasunak kontuan edukiz, protokolo hau dugu bi herri-administrazioen arteko lankidetzarako tresna; hain zuzen ere, aipatutako gaien eskudunak diren erakundeen arteko elkarrekintza ahalbidetu eta bultzatuko duena. Lortu nahi den azken helburua da herritarrei polizia-zerbitzuak ematean eraginkortasuna handitzea.

Lehenago adierazitako arrazoiengatik bi alderdiek lankidetzak-protokolo hau sinatu dute aintzat hartuz hurrengo

## KLAUSULAK

### **LEHENENGOA.- Lankidetza-protokoloaren xedea eta helburua**

Protokolo honen xedea da Nafarroako Foruzaingoaren eta Ertzaintzaren artean polizia-arloko lankidetza eta elkarlanerako oinarriak finkatzea.

Helburu hauek lortu nahi ditu: informazio-trukea bermatzea eta hobetzea, bi polizia-erakundeen artean une honetan dagoen esperientzia profesionala, teknikoa eta akademikoa hobetzea eta programen, planen, estrategien eta material eta teknologiaren alorrean loturiko elkarlaguntzan sakontzea.

### **BIGARRENA.- Alderdiak hartutako konpromisoak**

Lankidetza-protokolo honen helburua erdieste aldera, bi alderdiek Nafarroako Foruzaingoaren eta Ertzaintzaren solaskideak izendatuko dituzte. Berorien konpromisoa da berariazko lankidetza- eta elkarlan-ekintzak sustatzea eta garatzea eta elkarri beharrezko aholkularitza eskatzea, horretarako jarraian agertzen diren jardura-eremuetan balorazio estrategikoak trukatzu eta premiazko zat jotzen duten laguntza teknikoa erabiliz:

- a) Polizia-prozedurak eta -operatiboak
- b) Sare kriminal antolatuen aurkako prebentzioa eta borroka
- c) Terrorismoa
- d) Informazioa
- e) Delinkuentzia arrunta
- f) Genero-indarkeria
- g) Bi autonomia-erkidegoak eraginpean har ditzaketen mozketak zirkulazio-bideetan
- h) Katastrofeak eta larritasun handiko istripuak
- i) Prestakuntza poliziala eta dokumentazio berezitua
- j) Irakasle- eta aditu-trukea
- k) Ekipamendu polizialak eta teknologia berriak

BEREHALAKO KOMUNIKAZIOen kasuan lankidetza hau protokolo honen ERANSKINean ezarritako komunikazio-sistemen bidez bideratuko da eta datu eta informazio erreserbatuen trukearen kasuan, ordea, SOLASKIDEEN bidez. Solaskide horiek bi polizia-kidegoek izendatuko dituzte, betiere adierazitako jardura-eremuaren arabera, mailarik gorenean bitarteko gisa jarduteko.

### **HIRUGARRENA.- Jardura-eremu berriak antzematea**

Lankidetza-protokolo hau bi polizia-kidegoek izendatutako arduradunek aktibatuko dute bi polizia-kidegoentzat interesgarria izan eta, halaber, aurreko atalean sar daitekeen beste edozein jardura antzematen dutenean. Lankidetza gauzatuko den jakintzaren eta polizia-praktikaren arloa ezarri eta lortu nahi diren helburuetara eremu horretan hobekien moldatzen den lankidetza-mota adostuko dute.

## **LAUGARRENA.- Jarraipena eta ebaluazioa**

1. Bi alderdiek konpromisoa hartzen dute lankidetzeta-protokolo honen jarraipena elkarrekin egiteko eta sei hilean behin haren eraginkortasuna ebaluatzeko. Asmo horrekin, Protokoloaren Jarraipenerako Bitariko Batzordea eratuko da eta eginkizun hauek izango ditu: protokoloaren interpretazioan sor litezkeen zalantzak argitzea, haren garapenean eta betearazpenean egon litezkeen desadostasunak konpontzea, protokoloa orokorrean nola doan ikuskatzea eta, beharrezkoa izanez gero, hura hobetzeko proposamenak lantzea.
2. Batzordea osatuko dutenak Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko sailburuordea eta Nafarroako Gobernuko Barneko zuzendari nagusia dira, baita egokitzat jotzen diren aholkulariak edo adituak ere. Aholkulari edo aditu horiek urteko jardueraren txostena aurkeztuko diete lankidetzeta-protokolo honen sinatzaileei –Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko sailburua-.
3. Batzordeak sei hilean behin ohiko bilera egingo du. Alderdietako baten eskariz ere bilduko da.

## **BOSGARRENA.-Lankidetzeta-protokoloaren betearazpena**

Protokoloaren aplikazioari dagokion edozein arazo alderdien arteko adostasunez ebatziko da.

Eta alderdi biak ados daudela adierazteko, lankidetzeta-protokolo hau izenpetu dute, bi aletan, goiburuan adierazitako toki eta egunean.

**SEGURTASUN SAILA**

**NAFARROAKO  
LEHENDAKARITZA, GOBERNUKO  
JUSTIZIA ETA  
BARNE SAILA**

---

Estefanía BELTRÁN DE HEREDIA  
ARRONIZ  
SEGURTASUNNEKO SAILBURUA

---

Javier MORRÁS ITURMENDI  
NAFARROAKO GOBERNUKO  
LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA  
BARNE KONTSEILARIA

---

## **ERANSKINA**

---

---

# **ERTZAINZAREN ETA NAFARROAKO FORUZAINGOAREN ARTEKO LANKIDETZA PROTOKOLOA**

---

Ertzaintzaren eta Nafarroako Foruzaingoaren arteko lankidetzaren estua finkatzeko asmoz, jarraian agertzen diren komunikazio-sistemak eratzten dira, bi polizia-kidegoen arteko Lankidetzaren Protokoloaren bigarren klausulan ezarritakoaren arabera.

## **A.- ERTZAINZAREN IDAZKIAK/ESKABIDEAK NAFARROAKO FORUZAINGOARI BIDALTZEKO ERA**

### 1.- TERRORISMOAREN ARLOA

Terrorismoaren arloan, gai espezifikoak denez, komunikazioa Ertzaintzaren eta Foruzaingoaren burutzek ezarriko dituzten barneko komunikazio-kanalen bidez egingo da.

### 2.- DELINKUENTZIA ARRUNTA/ANTOLATUA – IKERKETA. PREMIAZKOAK EZ DIREN KOMUNIKAZIOAK.

Nafarroako Foruzaingoaren unitate batzuei informazioa eskatu edo berorietara idazkiak helarazteko beharra dagoenean, Ertzaintzaren unitateek Ikerketa Kriminalerako Atalera idazkia bidaliko dute eta horrek, halaber, segurtasun handiko komunikazio-kanalen bidez Nafarroako Foruzaingoaren HARREMAN GUNE BAKARRERA igorriko du unitate horrek informazio-eskari hori kudeatu eta haren ardura har dezan.

Eskabidea Foruzaingoaren helbide elektroniko honetara igorriko da:

[pflenacetecnologico@navarra.es](mailto:pflenacetecnologico@navarra.es)

komunikazio horien adibideak hauek ditugu:

- Txosten polizialak eskatzea
- Atestatuak, salaketak eskatzea
- Polizia-aurrekariak eskatzea

### 3.- EGITEN ARI DIREN JARDUERAK (JARDUNEAN). PREMIAZKO KOMUNIKAZIOAK.

Ertzaintzaren Aginte eta Kontrol Zentroaren Unitateak polizia-kidegoen kontrol-zentro iraunkorrei hau jakinaraziko die: jardunean dauden gorabehera polizialak, premiazko komunikazioak eta hitzarmen eta protokoloetan ezarritako berehalako jarduketetarako interesekoa den edozein motatako informazio polizialaren trukaketa.

Kasuan kasuko lurraldeko Ertzaintzaren Aginte eta Kontrol Zentroa (Ardatz) Nafarroako Foruzaingoaren Aginte eta Koordinazio Zentroarekin zuzenean harremanetan jarriko da aipatutako helburuarekin.

Berehalako (edo, behar denean, zehaztuko direnak) komunikazioen adibideak hauek dira:

- Burututako ekintza terroristak, prestaketa-egintzak (pistolaz egindako ibilgailu-lapurreta, etab) eta berorien ondorioak, mota eta garrantzia edozein direla.
- Delituzko gorabeherak, baldin eta beren inguruabarrek Nafarroako polizia-kidegoei BEREHALA jakinaraztea gomendatzen badute (Euskal Autonomia Erkidegoaren muga geografikoa osatzen duten udalerrietan eginak).
- Nafarroako polizia-kidegoentzat interesekoak diren ibilgailu-osteak eta berreskurapenak
- Katastrofeak, hondamendiak, larritasun handiko istripuak eta komunikazio-bideen mozketak; baldin eta Nafarroako Foru Komunitatearentzat interesekoak badira.

Ertzaintzaren A.K.Z. Unitateak eta Foruzaingoaren A.K. Zentroak 24 orduko zerbitzua dute.

### **ERTZAINZAREN A.K.Z. NAGUSIA**

Telefonoa: 94.606.93.23  
Faxa: 94.606.93.25

#### **BIZKAIKO A.K.Z.**

Telefonoa: 94.607.94.10  
Faxa: 94.607.94.81

#### **ARABAKO A.K.Z.**

Telefonoa: 945.06.45.10  
Faxa: 945.06.42.43

#### **GIPUZKOAKO A.K.Z.**

Telefonoa: 943.44.91.62  
Faxa: 943.44.91.68

### **FORUZAINGOAREN A.K.Z.**

Telefonoa: 948 20.29.20  
Faxa: 848 42.68.62

## **B.- NAFARROAKO FORUZAINGOAREN IDAZKIAK/ESKABIDEAK ERTZAINZARI BIDALTZEKO ERA**

### **1.- TERRORISMOAREN ARLOA**

Terrorismoaren arloan, gai espezifikoa denez, komunikazioa Ertzaintzaren eta Foruzaingoaren burutzek ezarriko dituzten barneko komunikazio-kanalen bidez egingo da.

### **2.- DELINKUENTZIA ARRUNTA/ANTOLATUA – IKERKETA. PREMIAZKOAK EZ DIREN KOMUNIKAZIOAK**

Ertzaintzaren unitate batzuei informazioa eskatu edo berorietara idazkiak helarazteko beharra dagoenean, Nafarroako Foruzaingoaren unitateek Ikuskapen Orokorraren Arloko Lotura Taldera idazkia bidaliko dute eta horrek, halaber, segurtasun handiko komunikazio-sistemen bidez Krimen Gaietarako Poliziaren Ataleko Z.Z. Unitatearen buruari igorriko dio.

[usscc.ertz@ertzaintza.net](mailto:usscc.ertz@ertzaintza.net)

Komunikazio-adibideak:

- Txosten polizialak eskatzea
- Atestatuak, salaketak eskatzea
- Polizia-aurrekariak eskatzea

### 3.- EGITEN ARI DIREN JARDUERAK (JARDUNEAN). PREMIAZKO KOMUNIKAZIOA.

Nafarroako Foruzaingoaren Koordinazio Zentro Iraunkorra kasuan kasuko lurraldeko Ertzaintzaren Aginte eta Kontrol Zentroarekin (Ardatz) zuzenean harremanetan jarriko da jarduera hauei begira:

- Burututako ekintza terroristak, prestaketa-egintzak (pistolaz egindako ibilgailu-lapurreta, etab) eta berorien ondorioak, mota eta garrantzia edozein direla.
- Delituzko gorabeherak, baldin eta beren inguruabarrek Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoei BEREHALA jakinaraztea gomendatzen badute (Euskal Autonomia Erkidegoaren muga geografikoa osatzen duten udalerrietan eginak).
- Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoentzat interesekoak diren ibilgailu-osteak eta -berreskurapenak
- Katastrofeak, hondamendiak, larritasun handiko istripuak eta komunikazio-bideen mozketak; baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoarentzat interesekoak badira.

Ertzaintzaren A.K.Z. Unitateak 24ko zerbitzua du.

#### A.K.Z. NAGUSIA

Telefonoa: 94.606.93.23  
Faxa: 94.606.93.25

#### BIZKAIKO A.K.Z.

Telefonoa: 94.607.94.10  
Faxa: 94.607.94.81

#### ARABAKO A.K.Z.

Telefonoa: 945.06.45.10  
Faxa: 945.06.42.43

#### GIPUZKOAKO A.K.Z.

Telefonoa: 943.44.91.62  
Faxa: 943.44.91.68

#### FORUZAINGOAREN A.K.Z.

Telefonoa: 948 20.29.20  
Faxa: 848 42.68.62